

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2025eko errolda

Behin-behineko onespina eman zaio landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2025eko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, interesa dutenek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitza joko da, eta kobratzeko aldiari ekingo zaio.

Landa ondasun higiezinaren gaineko 2025eko zerga 2025eko ekainaren 2a eta abuztuaren 2a (biak barne) bitarteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango da borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundean duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2025eko ekainaren 30ean.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari ekingo zaio, hala xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak, eta kobratu beharrekoari lege ezarritako erreklargua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutze interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2025eko apirilaren 22a

Alkatea

ANA ASUNCIÓN FERNANDEZ DE MONJE ALZOLA